



Trebakuntza 2008/11: ERDARAKADAK I

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta.

OHIKO AKATSAK

1. * *Baliarrain Tolosaldean **aurkitzen da**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.*
2. * *Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **beranduago**.*
3. * *UEMAko **herri desberdinetan** jarri da abian etorriberriak herritartzeko egitasmoa.*
4. * *Gutun honen bidez, eskaera **berri bat** egin nahi dizut.*
5. * *Hilaren 20an egingo den emanaldira etortzeko gonbidapena **luzatzen** dizut.*
6. * ***Ongi etorriak** Kultur Etxearen inauguraziora!*
7. * *Hileko azken ostegunean **ospatu** zen bilera.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **”Aurkitzen da”** gaztelaniazko **“se encuentra”** espresioaren kalkoa da. Euskarazko forma zuzena eta jatorra **“dago”** da.

Ad. Baliarrain Tolosaldean **dago**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.

Bestalde oso ohikoa da **“kokatuta dago”** espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=”está situad@”), **eta ez da zuzena.**

2. “Beranduago” erabiltzeak esan nahi du **aurreneko txirrindularia ere berandu** iritsi dela, eta pentsatzekoa da lehenengoa ez dela berandu iritsi.

Ad. Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **geroago.**

Nolanahi ere, gerta liteke testuinguru jakin batzuetan **“beranduago” ondo** egotea.

Ad. Bostetan geunden geratuta. Ni bostak eta hogeian iritsi nintzen (berandu), eta Aitor hamar minutu **beranduago.**

3. Gaztelaniazko **“diferentes” ez da beti “ezberdinak”** izaten euskaraz.

Diferentes pueblos (=varios pueblos) = herri batzuk, zenbait herri

Pueblos diferentes (=de características diferentes) = herri desberdinak/ezberdinak (hau da, ez dira berdinak, ez dituzte ezaugarri berak)

Ad. UEMako **zenbait herritan / herri batzuetan** abian jarri da etorriberriak herritartzeko egitasmoa.



4. Euskaraz, **“berri” zaharraren aurkakoa** adierazteko erabiltzen da, ez aurrekoari zerbait gehitzeko. Horrelakoetan, **“beste”** erabiltzen dugu.

Ad. Gutun honen bidez, **beste eskaera bat** egin nahi dizut.

5. **“Luzatu”, berez, tamainari lotuta** erabiltzen da euskaraz, gauza edo pertsona bat luzatu (=luzeagoa egin), eta ez eman edo egin esateko.

Ad. Hilaren 20an egingo den emanaldira **gonbidatzen zaitut.**

6. Euskaraz ez dago –ak horren premiarik, **espresioak ez baitu ez pluralik (-ak) ez singularrik (-a)** hartzen.

Ad. **Ongi etorri** Kultur Etxearen inauguraziora!

7. **“Ospatu” jaiak urteurrenak eta horrelakoak egiten dira**, benetan zerbait ospatzeko motiboa badago. Bestelakoetarako, **“egin”** da egokia.

Ad. Hileko azken ostegunean **izan zen** bilera / **egin zuten** bilera.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org